

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Foruzaingoak 63 pertsona atxilotu ditu Sanferminetan, horien heren bat ebasketak egiteagatik

*Agenteek herritarren 700 salaketa jaso dituzte; iaz 655 salaketa egin ziren*

Martes, 15 de julio de 2014

Foruzaingoak 63 pertsona atxilotu ditu amaitu berri diren Sanferminetan, hainbat delitu egiteagatik; horietatik 24 ebasketak izan dira. Lapurretak (8 atxilotu), droga-trafikoa (6), desobedientzia eta erresistentzia (4), bide-segurtasuna (3), lesioak (2), sexu-erasoak (2) eta bestelakoak (14) izan dira egindako beste delitu batzuk.



Foruzaingoaren antolaketa entzierroan

Astelehenean, uztailak 7, eta ostiralean, uztailak 11, egin ziren atxiloketa gehien (14na pertsona bi egunetan). Larunbatean, uztailaren 12an, 13 pertsona atxilotu ziren. Aldiz, atxiloketa gutxien asteartean eta astelehenean egin ziren (bana bi egunetan). Iaz, 87 pertsona atxilotu zituzten agenteek jaietan, aurten baino 24 pertsona gehiago. 2013rekin alderatuta, ebasketak (42 iaz eta 24 aurten), desobedientzia eta erresistentzia (iaz 14, aurten 4) eta droga-trafikoarengatik (iaz 13, aurten 6) atxilotu kopuruak egin du behera gehien. Lapurretengatik atxiloketek, ordea, gora egin dute (iaz 0, aurten 8).

Gogorarazi beharrekoa da Foruzaingoak 750 agenteko [antolaketa](#) jarri duela abian Sanferminetan. Berritasun gisa, aurten, kontrola handitu da txupinazoan sexu-erasoak eta entzierroen ondoren askatzen dituzten bigantxetan batzutan izaten den indarkeria saihesteko.

### Departamentuaren balorazioa

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren arabera, gainerako Segurtasun Indar eta Kidegoekin elkarlanean funtzionatu duen antolaketa horri eta kontzientziazio-kanpainari esker, "sexu-erasoak bostera



murriztu dira, eta guztiak txikiak izan dira". Zehazki, horietatik bi Foruzaingoaren aurrean salatu ziren. Foruzaingoak erasotzaileak atxilotu eta epailearen esku utzi zituen.

Agentea

Bigantxetan gertatutako erasoek dagokienez, 14 pertsona salatu dira arrazoi horrengatik, gehienak asteartean, uztailaren 8an. Departamentuko iturrien arabera "ondorengo egunetan nabarmen murriztu ziren halako ekintzak, polizia-antolaketaren eraginkortasunak lagunduta".

Foruzaingoaren egitekoak ere azpimarratzekoa izan da, bai entzierroetan bai zezenketetan. 172 pertsona irtenarazi ditu (59 entzierroetan eta 113 zezenketetan). Agenteek beste 126 pertsona ere salatu dituzte gauzak jaurtitzeagatik eta beste bederatzi ordena publikoa asaldatzeagatik.

Entzierroan zezen-plazara joateko uneari buruz, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak zera esan du: "Erruki Etxeak sarbidea kobratzeak bertaratutakoak modu homogeenan sakabanatzea erraztu du eta, hala, jendetza handiegia biltzeak edo plazan jendea behar ez bezala sakabanatuta egoteak eragin ditzakeen arazoak saihestu dira".

### **Herritarren salaketak**

Bestalde, jaiegunetan, 700 zigor-salaketa jaso dituzte agenteek Herritarren Arretarako Bulegoan. Iazko Sanferminetan, aldiz, 655 salaketa aurkeztu ziren. Gehienak ebasketak (% 77) eta lapurretak (% 11) izan dira.

Iazko datuekin alderatuta, azpimarratzekoa da lapurretengatik (2013an 45 izan ziren eta 2014an 78) eta ebasketengatik (522 2013an eta 78 2014an) salaketa kopuruak gora egin izana. Hala ere, behera egin dute erasoekin (bost iaz, bat aurten) eta tratu txarrekin (lau iaz, bat ere ez aurten) erlazionatutakoek. Zazpi salaketatik bat larunbatean, uztailak 12, aurkeztu zen, hau da, aurkeztutako 700 salaketa guztietatik 108.

### **Zezen-plazako esku-hartzeak**

Foruzaingoko 60 agenteek osatu dute entzierroetako taldearen antolaketa. Beste 30 polizia arratsaldeetako zezenketa-ekitaldiak kontrolatu dituzte, uniforme zein kalez jantzita. Agente horiekin batera izan dira Joko eta Ikuskizunen Brigadako kideak, agintarien ordezkari gisa lanean.

Agenteek 128 salaketa jarri dituzte zezen-ikuskizunen inguruko araudia urratzeagatik, gehienak gauzak edo likidoak jaurtitzeagatik. Iaz 65 izan ziren jarritako salaketak. Gainera, 172 pertsona plazatik irtenarazi dituzte ikuskizunak abian ziren bitartean. Iazko jaietan, 61 pertsona kanporatu ziren. Beste pertsona bat uztailaren 7ko zezenketan atxilotu zuten, sexu-erasoa egiteagatik.

Bestalde, agenteek 22 salaketa jarri zituzten zezen-plazan estupefazianteak kontsumitu edo izateagatik eta beste 36 neurrigabekeria larriak egiteagatik. Bederatzi pertsona inputatu dira agenteen aurrean desobedientzia larria egiteagatik eta beste zortzi gizatasunaren udal-ordenantza urratzeagatik.

Zezen-ikuskizunen inguruko araudia urratzeagatik salaketei dagokienez, horietako batzuk sarreraren birsalmentarekin (22 salaketa), entzierroaren ondoren bigantxetara igo edo bigantxak kolpatzen dituzten pertsonen egindako erasoekin (14 salaketa), bigantxei egindako tratu txarrekin (7 salaketa) eta entzierroaren ordenantzarekin (2 salaketa, horietatik bat bideo-kamerarekin korrika egiteagatik, asteazkenean, uztailaren 9an) erlazionatutakoak izan ziren.

Joko eta Ikuskizunen Brigadako agenteek zezenekin lotutako 80 jai kontrolatu dituzte (8 zezenketa, 18 entzierro eta ganadu-askatze, zekorketa bat pikadoreekin, korrida bat burtziekin eta errekorreen bi lehiaketa). Horietan 23 salaketa jarri dituzte honako arrazoi hauek direla-eta: zigor-burtzien zabalera handiegia izateagatik (7), banderilla gehiegi edukitzeagatik (5), ganaduaren irteera estaltzeagatik (3), ganaduaren inguruan biratuz pikatzeagatik (3), lerroen barruan pikatzeagatik (2), toreatzailea berandu iristeagatik (2) eta hiltzeko burtzi batekin oina lurrean jartzeagatik (1).

### **Foruzaingoaren beste jarduera batzuk**

Egun hauetan, Foruzaingoak 460 administrazio-salaketa ere jarri ditu, iaz baino 49 gehiago. Horietatik 111 trafiko-arauak hausteagatik izan dira, beste 111 joko eta ikuskizunekin erlazionatutako urratzeengatik, 95 udal-ordenantzak ez betetzeagatik eta 143 hainbat administrazio-arau hausteagatik.

Trafikoaren eta bide-segurtasunaren alorrean, Foruzaingoak 10.720 alkohol-proba egin ditu. 68 positiboak izan dira. Gidari horietatik bederatzi bide-segurtasunaren aurkako delitua egiteagatik inputatu dira eta beste 59 salatu egin dira. Agenteeek zortzi kontrol egin dituzte egunero, uztailaren 5etik 14ra, bi ordukoak, eguneko hainbat tartetan.

Foruzaingoko Aginte eta Koordinazio Zentroak 360 gorabehera artatu ditu aurtengo Sanferminetan, iazkoetan baino 127 gehiago. Horien artetik nabarmentzen dira pertsonentzako laguntzarekin (48) eta istiluekin (29) erlazionatutakoak. Amaitzeko, Foruzaingoak sei pertsona identifikatu ditu jaietan.